

# BESTELAKO XEDAPENAK

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 5973

*EBAZPENA, 2011ko azaroaren 23koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko beken deialdia egiten duena.*

Uztailaren 26ko 171/2011 Dekretuak kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko beka arautzen ditu.

Dekretu horren 2. artikulua 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedituentz aurretiaz izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan ezarritakoaren arabera ere, bidezkoa da kanpoko harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko beka deitzea 2012. urteko ekitaldirako.

Ondorioz, honako hau

#### EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Helburua.

Ebazpen honen helburua da kanpo harremanen arloan profesionalak espezializatzeko beken deialdia egitea 2012. urterako.

Bigarren artikulua.– Deitutako beka.

1.– 12 hilabeteko iraupena duten 13 beken deialdia egiten da.

2.– Bekadunek beraien eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren honako bulego hauetan burutuko dituzte:

- Lauk, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.
- Lauk, Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritza, Bruselan.
- Batek, Euskadiren Estatu Batuak, Kanada eta Mexikoko Ordezkaritza, New Yorken.
- Batek, Euskadiren Estatu Batuak, Kanada eta Mexikoko Ordezkaritza, Mexiko DFko bulegoan.
- Batek, Euskadiren Txile eta Peruko Ordezkaritza, Txileko Santiagon.
- Batek, Euskadiren Kolonbia, Venezuela eta Erdialdeko Amerikako Ordezkaritza, Bogotá.
- Batek, Euskadiren Argentina, Brasil, Paraguai eta Uruguai Ordezkaritza, Buenos Airesen.

Hirugarren artikulua.– Dotazioa.

1.– Beka bakoitzak honelako dotazioa izango du:

– Vitoria-Gasteizen burutu beharreko beka bakoitzak, 16.000 euro.

– Bruselan, New Yorken, Mexiko DFn, Txileko Santiagon, Bogotá eta Buenos Airesen burutu beharreko bekek, 24.000 euro beka bakoitzeko.

2.– Zenbateko horrek dagokion atxikipen fiskala izango du.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedituentz aurretiaz izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikulua ondo onarazteko, prozedura ebatzi eta deitutako beka esleitzeko, kreditu nahikoa eta egokia egon behar da 2012. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan.

Laugarren artikulua.– Ordainketa.

1.– Beka zatika ordainduko da; honela, hain zuzen:

– Lehenengo ordainketa beka onartu ondoren egingo da, eta esleitutako diru-laguntzaren % 40koa izango da.

– Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren % 30ekoa, bekaldia hasi eta lau hilabete igarotakoan egingo da, bekadunek zatikako txostenak aurkeztu ondoren.

– Hirugarren eta azken ordainketa, geratzen de % 30ekoa, beka bukatzen denean egingo da, bekadunek amaiera txostenak aurkeztu ondoren.

2.– Bigarren eta hirugarren ordainketa egin aurretik, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bekadunaren aprobetxamenduari buruzko txosten bat egin beharko du; txosten hori espeditentzari atxikiko zaio.

3.– Ordezko ordainduko zaien diru-zenbatekoa uko egin duen bekadunak erabili ez duen bekdariaren arabera izango da. Ordainketa egiteko, artikulua honen 1. paragrafoan aurreikusitako ordainketa zatikatuak eta ehunekoak erabiliko dira.

Bosgarren artikulua.– Eskabideak aurkezteko tokia, modua eta epea.

1.– Interesa dutenek, uztailaren 26ko 171/2011 Dekretuan eskatutakoak betetzen badituzte, aukeraketa prozeduran parte hartzeko eskabideak aurkezteko aukera izango dute. Eranskinean jaso da horretarako inprimaki eredua. Interesatuak eskura izango dute Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian eskaerak formalizatzeko inprimaki eredua. Halaber, Euskal Herriko Unibertsitatearen Ikerketa Errektoreordetzan, Araba eta Gipuzkoako campusetako errektoreordetzetan, eta Deustuko Unibertsitatearen Ikerketa Errektoreordetzan edota Eusko Jaurlaritzaren web orrian –[www.ej-gv.net](http://www.ej-gv.net)– ere jaso daitezke inprimaki ereduak.

2.– Eskabideak helbide honetara zuzendu beharko dira:

Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

Lehendakaritza-Eusko Jaurlaritza

Nafarroa kalea, 2

01007 Vitoria-Gasteiz

3.– Eskabideak honako toki hauetan aurkez daitezke: aurreko paragrafoan adierazitako helbidean, Euskadiren kanpoko ordezkarietzan, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrei Laguntzeko bulegoetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 30/1992 Legean zehaztutako tokietan.

4.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Seigarren artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

1.– Uztailaren 26ko 171/2011 Dekretuaren 5.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, aurkeztu den dokumentazioa osorik ez badago Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak eskatzaileari dokumentazio osagarria hamar eguneko epean bidaltzeko eskatuko dio.

2.– Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badu epe horretan –jakinarazi zaion egunaren biharamunetik kontatzen hasita–, eskaera bertan behera utzi duela pentsatuko da; aldez aurretik horretarako ebazpena eman beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak 42. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Zazpigarren artikulua.– Onartutako eta baztertutakoen zerrenda argitaratzea.

1.– Onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) web gunean eta Irekian argitaratuko da. Baztertutako pertsonak hamar egun izango dituzte erreklamazioak aurkezteko.

2.– Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, zerrenda behin betikotzat joko da.

3.– Erreklamaziorik aurkeztu bada, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak ebatzi beharko ditu horiek, kudeaketa-organoak txostena egin ondoren. Aurkeztutako erreklamazioen ondorioz zerrenda hori aldatzea ebazten bada, [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) web gunean eta Irekian argitaratuko da behin betiko zerrenda.

Zortzigarren artikulua.– Hautaketa Batzordea.

Uztailaren 26ko 171/2011 Dekretuaren 6. artikuluan merituak baloratzeko izendatutako Hautespen Batzordeko kideak honako hauek izango dira:

– Ainhoa Alday Palacios andrea, Kanpo Harremanetarako zuzendaria, batzordeburua. Lanpostu hori bete gabe balego, titularra ez balego, gaixorik balego edo legezko bere arazoiren bat balego, Sofía de Orue Valdés-ek, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-teknikariak, ordezkatu du.

– Marta Marín Sanchez andreak, Euskadiren Europar Batasunerako ordezkaria, batzordeko buruordea. Lanpostu hori bete gabe balego, titularra ez balego, gaixorik balego edo legezko bere arazoiren bat balego, Rafael Hueso Vicent-ek, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-teknikariak, ordezkatu du.

– Elena Iturrate Bizkarguenaga andrea, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria. Batzordearen idazkaria izango da; hitza bai, baina botorik ez du izango. Lanpostu hori bete gabe balego, titularra ez balego, gaixorik balego edo legezko bere arazoiren bat balego, Sofía de Orue Valdés-ek, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-teknikariak, ordezkatu du.

– Ainara Jauregui Rekondo andrea, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-teknikaria. Lanpostu hori bete gabe balego, titularra ez balego, gaixorik balego edo legezko bere

arrazoiren bat balego, Camila de Epalza Azquetak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-teknikariak, ordezkatu du.

Bederatzigarren artikulua. Balorazio irizpideak eta azpi-irizpideak eta horien ponderazioa.

1.– Ibilbide akademikoa gehenez ere 20 punturekin baloratuko da; honela, hain zuzen:

a) Ikasketa-espediterearengatik gehenez ere 5 puntu emango dira, unibertsitate ikasketen azken hiru urteetako batezbesteko nota kontuan hartuta. Agirien bidez egiaztatu beharko da nota hori. Honela banatuko dira puntuok:

- Puntu 1, batezbesteko nota 5etik 5,99ra artean badago.
- 2 puntu, batezbesteko nota 6tik 6,99ra artean badago.
- 3 puntu, batezbesteko nota 7tik 7,99ra artean badago.
- 4 puntu, batezbesteko nota 8tik 8,99ra artean badago.
- 5 puntu, batezbesteko nota 9tik 10era artean badago.

b) Interesdunaren espezializazioarengatik gehenez ere 15 puntu emango dira; honela, hain zuzen:

– Gehenez ere 5 puntu, Europako edo nazioarteko gaien hainbat jakintza arlori buruzko ikastaroengatik eta Europako erakundeetarako, nazioartekoetarako edota kidego diplomatikorako oposizioetarako egindako ikasketengatik; behar bezala egiaztatu beharko dira ikasketok.

– Gehenez ere 10 puntu, Europako edo nazioarteko gaien hainbat jakintza arlotan master-ikasketak izateagatik.

2.– Atzerriko hizkuntzak ahoz zein idatziz menderatzea gehenez ere 15 punturekin baloratuko da; honela, hain zuzen:

a) Ingelesa menderatzeagatik gehenez ere 15 puntu emango dira; honela, hain zuzen:

- 10 puntu esleituko zaizkie B1 mailako ingeles ziurtagiria egiaztatzen dutenei.
- Beste 5 puntu esleituko zaizkie B2 edota goragoko egiaztagiria bat egiaztatzen dutenei.

b) Atzerriko beste hizkuntza batzuk: 5 puntu esleituko zaizkie B1 edota goragoko egiaztagiria bat egiaztatzen dutenei.

3.– Kanpo harremanen alorrean sektore publiko edo pribatuan izandako ibilbide profesionala eta ikerketa lanak gehenez ere 20 punturekin baloratuko dira; honela, hain zuzen:

- 4 puntu, kanpo harremanei buruzko gaietan lanean emandako urte oso bakoitzeko.
- 4 puntu, kanpo harremanei buruzko ikerketa lan bakoitzeko (10 puntu, lanok argitaratu badira).

4.– Euskara menderatzea gehenez ere 10 punturekin baloratuko da; honela, hain zuzen:

- B1 titulua edo baliokidea: 3 puntu.
- B2 titulua edo baliokidea: 6 puntu.
- C1 titulua edo baliokidea edo goragokoa: 10 puntu.

5.– Hautaketa Batzordeak dei egingo die hautagaiei elkarrizketa bat egin dezaten; elkarrizketa horren bitartez, jarraian azaldutako ezagupenak egiaztatuko dira eta hautagaiak eskatutako profilari egokitzen zaizkion aztertuko da.

a) Europako eta nazioarteko ekonomia eta politikan gaurkotasuna duten gaiak behar bezala ezagutzea. Proba hori nazioarteko egoera ekonomikoari, nazioarteko politikari eta Europako gaur egungo egoerari buruzko bosna galderako hiru sortak osatuko dute, eta horretarako berariaz prestatutako galderen artetik itsu-itsuan aterako dira.

Gehienez ere 15 punturekin baloratuko da; honela, hain zuzen:

- Gehienez ere 5 puntu, nazioarteko egungo egoera ekonomikoa ezagutzeagatik.
- Gehienez ere 5 puntu, nazioarteko egungo egoera politikoa ezagutzeagatik.
- Gehienez ere 5 puntu, Europako gaur egungo egoera ezagutzeagatik.

b) Hautagaiaren profil profesionala bekaren helburu den edukiari egokitzea gehienez ere 20 punturekin baloratuko da, honako proba praktikoak egin ondoren:

- Gizarte-trebeziei buruzko ariketa praktiko bat, 10 puntu gehienez ere.
- Erakunde ordezkari bati buruzko ariketa praktiko bat, gehienez ere 10 puntu.

Hamargarren artikulua.– Ebazpena.

1.– Uztailaren 26ko 171/2011 Dekreturen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak eman beharreko ebazpena emango du, hautaketa batzordeak egindako proposamena ikusi ondoren. Ebazpen horren bitartez, beken onuradunak eta, hala badagokie, ordezkariak izendatuko ditu, beka aldia noiz hasi eta non burutuko den zehaztuko du, edo esleitu gabe utziko ditu hautagai egokirik ez dutenak. Ebazpena arrazoitu egin beharko da eta ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

2.– Esleipen ebazpena eskatzaileei banan-banan jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) web gunean argitaratuko da, guztiek horren berri izan dezaten.

3.– Ebazpen horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontaktzen.

4.– Ebazpen hori gehienez ere 6 hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da, deialdi hau argitaratzen den egunean kontaktzen hasita.

5.– Epe hori igaro eta interesatuei inolako ebazpenik jakinarazi ez bazaie, eskabideak ezetsi direla ulertu beharko dute.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetan eta uztailaren 26ko 171/2011 Dekretuan aurreikusita ez dagoen guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko apean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) web gunean argitaratuko da eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 23a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,  
GUILLERMO ECHENIQUE GONZÁLEZ.

ERANSKINA  
ESKABIDE EREDUA

Izena	N A N / Pasaporte		
.....	.....		
Abizenak	Telefonoa		
.....	e-posta.....		
Helbidea	.....		
Titulazioa	.....		
Ikastaroak	.....		
Argitalpenak	.....		
Zein euskal etxetako bazkidea	.....		
Bazkide zka.	.....		
Hizkuntzak			
Euskara <input type="checkbox"/>	Frantsesa <input type="checkbox"/>	Ingelesa <input type="checkbox"/>	Bestelakoak <input type="checkbox"/>
Non burutu nahi duen beka:			
	Vitoria-Gasteizen <input type="checkbox"/>	Argentinan <input type="checkbox"/>	New Yorken <input type="checkbox"/>
	Mexikon <input type="checkbox"/>	Bruselan <input type="checkbox"/>	Kolonbian <input type="checkbox"/>
			Txilen <input type="checkbox"/>

Tokia eta eguna .....

Sinadura .....

Inprimaki ereduarekin batera aurkeztu beharko duen dokumentazioa:

- a) NANaren fotokopia. Euskal etxeetako kideek pasaportearen aurkeztu beharko dute.
- b) Karnet-tamainako argazki bat.
- c) Erroldatze ziurtagiria, eskatzaileak administrazio egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan beka deitzen diren eguna baino lehen duela egiaztatzeke edo, hala badagokio, euskal etxearen egindako ziurtagiria, bertako kide dela egiaztatzeke.
- d) Goi-mailako unibertsitate egoera edo gradua egiaztatzeke titulua (jatorrizkoa edota fotokopia konpultsatua). Titulua Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetan emandakoa bada, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak homologatutako titulua aurkeztu beharko da. Europako unibertsitate-eremuko estatu bateko unibertsitate baten gradu-ondoko titulua izanez gero, ez da horrelakorik aurkeztu beharko.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura horrelako bekarik ez antzekorik aurretik ez duela eskuratu adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena.
- f) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik ez duela eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere ez duela jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- g) Curriculum vitae-a, ikasketa-espedita barne hartuz.
- h) Lortu nahi den bekarako garrantzi berezia duten ikasketen eta esperientzia praktikoaren agiriak. Meritutzat hartzeke egiaztatzen diren ikasketek ofizialtasuna eta balio akademikoa izan beharko dituzte.
- i) Eskatzailearen egindako lanen eta argitalpenen kopia.